



## **EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK. 2018-2019 ikasturteko oinarriak eta deialdia.**

### **1. artikulua.—Diru -laguntzen xedea**

Arau hauen xedea da 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak eta ikastaroak egiteagatik diru laguntzak emateko prozedura arautzea.

### **2. artikulua.—Aurrekontu kreditua eta diru-laguntzen zenbatekoa**

Diru-laguntza hauek onartzeko dagoen kreditu erabilgarria 500,00 eurokoa da. Gastu guztia 2019ko ekitaldian indarrean dagoen aurrekontuaren 335.48197 partidaren kontura izango da. Kreditu uztartuen arteko soberakinak egotekotan edo hasieran aurreikusitako kreditua handitzekotan, banandu behar diren diru laguntzen zenbatekoa proportzionalki handitu ahal izango da, baina ezin izango da inola ere laguntzaren gehienezko kopurua gainditu, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **3. artikulua.—Onuradunak**

Eskaera aurkeztu eta onuradun gauzatu ahal izango dira:

Ziortza-Bolibar udalerrian erroldatutako pertsonak (deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean), 2018/2019 ikasturtean euskara ikasketak edo ikastaroak egin dituztenak.

Ikasketa eta ikastaro horiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

— HABE-k homologaturiko euskaltegi publiko zein pribatuetan egindako ikastaroak.

— Diruz lagundu ahal izango dira bai urte osoko ikastaroak (2018ko urritik 2019ko ekainera), bai eta 2019ko uztailan, abuztuan eta irailean egindako ikastaro trinkoak eta barnetegiak. Barnetegiaren kasuan matrikula gastuak baino ez dira diruz lagunduko eta inola ere ez estantzia, garraio eta bestelako gastuak.



— Ez dira diruz lagunduko ikastetxeek edo horko Guraso Elkarteek eskolaz kanpoko jarduera gisa antolatutako euskara ikastaroak. Edonola ere, ezin izango dira onuradun gauzatu, azaroaren 17ko 33/2003 Diru-laguntzen Lege Orokarren 13.2 artikuluan zehazten diren egoeran dauden pertsonen, diru-laguntzaren izaeragatik arau bereziren bitartez salbuespena zehazten denean izan ezik.

Erroldatzearen baldintza ofizioz egiaztatuko da.

#### 4. artikulua.—*Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Eskabideak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2019ko azaroaren 8an bukatuko da.

Eskabideak astelehenetik barikura 9:00 eta 14:00 orduak bitartean aurkeztuko dira Ziortza-Bolibarko Udal Erregistroan, eta horretarako 1. eranskinean agertzen den eskabide eredu erabiliko da. Horrez gain, eskabideak urriaren 1eko administrazio prozedura erkidearen 39/2015 legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainontzeko bideen bitartez ere aurkeztu daitezke.

2. Eskabidearekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia. Eskatzailea adin txikikoa bada, eskaera gurasoren bat edo tutoreak egin beharko du, familia-liburua aurkeztuz.

b) Diru laguntzak jasotzeko ezintasun baldintzetan edo egoeran ez egotearen ardurapeko adierazpena (II eranskinaren arabera).

c) Eskabideri buruzko zinpeko adierazpena (II eranskinaren arabera).

d) Euskaltegiak egindako ziurtagiria, ondoko hauek zehaztuz:

— Matrikula gisa ordaindu den zenbatekoa.

— Ikaslea eskolaratu den orduen portzentajea. Euskaltegiak ikastaro horretan emandako orduak eta ikasleak jasotakoak zehaztuko dira.

— Egindako maila edo mailak, eta horiek gainditu diren ala ez.

Eskaera egiteko agiria eta artikulua honetan eskatzen diren gainontzeko ereduak Ziortza-Bolibar Udaleko webgunean egongo dira eskuragarri ([www.ziortza-bolibar.eus](http://www.ziortza-bolibar.eus)), bai eta udal bulegoetan ere.



Aurkeztutako eskabide edo dokumentazioan akatsak edo hutsunerik egotekotan, eskatzaileari jakinarazpena igorri eta bi laneguneko epea emango zaio hutsak zuzentzeko. Zuzentzen ez badira, interesdunak diru laguntzari uko egin diola joko da eta ez da aintzat hartuko.

#### **5. artikulua.—Diru laguntzen zenbatekoa zehazteko eta emateko irizpideak.**

Diru laguntzen zenbatekoa hurrengo arauen arabera zehaztuko da:

- a) Onuradun bakoitzak jaso ahal izango duen gehienezko kopurua 150 eurokoa izango da. Onartutako kreditua egindako eskabide guztiei aurre egiteko behar adina izan ezean, organo emaileak erabilgarria den zenbateko osoa onartutako eskabide guztien artean banatzea erabaki ahal izango du.
- b) Diru laguntzaren onuraduna izateko gutxienez %85eko asistentzia justifikatu behar da.

#### **6. artikulua.—Instrukzioa eta ebazpena.**

Emate prozedura norgehiagokako lehiakoa izango da.

Prozedura ebazteko organo ahalduna Alkatetza da.

Prozedura amaitu, ebatzi eta jakinarazteko epea azaroaren 31n amaituko da. Epea hau igaro eta ebazpen jakinarazpena jaso gabe izan ezker, administrazio-isiltasunaren bitartez, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da.

Emandako ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dio eta horren kontra, alkatearen aurrean, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da, edo zuzenean txandaren arabera egokia den Bilboko Administrazio auzitegiaren aurrean Administrazio auzi-bidezko errekurtsua ere aurkez daiteke. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluek xedatzen dutenarekin eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 legearekin bat eginez.

#### **7. artikulua.—Beste diru laguntza batzuekin bateragarritasuna.**

Xede berbera duten beste diru laguntza batzuk jaso daitezke baina horren ondorioz ezingo da inolaz ere 5. artikuluan zehazten den gehienezko diru laguntza kopurua gainditu. Horrelakorik gertatzekotan, eman beharreko zenbatekoa gutxitu egingo da



edo soberan emandako kopuruak itzuli behar izango dira, kasu bakoitzean bidezkoa denaren arabera.

**8. artikulua.—Diru laguntzak ordaintzea.**

Deialdiaren prozedura ebatzi eta interesdunei behar moduko jakinarazpena egin ondoren, onartutako zenbatekoak ordainduko dira hilabeteko epean gehienez, eta erregelamenduko izapideak bete eta gero.

Alkatea, Alberto Garro Uribe



Ziortza-Bolibarren, 2019ko otsailaren 6an.